

■ erantzuiguzu...



943 300 228



zuzendariari@jalgi.com

Non dago baserriaren etorkizuna?

■ **Baserriak ez du** etorkizun samurra. Ikusi besterik ez dago zenbat eta zenbat baserri hustu diren azken 20 urteetan. Zenbat familia jaitsi diren herrietara, baserri mundua alde batera utzita. Etorkizunari begira jarriz gero, gazteen artean ikusten dut itxaropen izpi bat. Beraiek dute baserria aurrera ateratzeko ahalbidea eta gogoia, nire ustez.

Ez dira argitaratuko izenik gabe iristen diren mezuak. Izen-abizena eta telefono zenbakia eman behar dira. Laburitu behar izanez gero, zuzendaritzak badu horretarako eskubidea.

Gaur eguneko makineria berri eta ongariak asko lagundu dezakete, baina baserriaren sinistu behar da. Nire iritziz, funtsezkoa da baserria maitatzea. J.J. Ormaetxea (Ordizia)

■ **Turismoak zeresan**

handia izango du baserriaren etorkizunearan. Gero eta landetxe gehiago ikusten da bazterretan; beraz, etorkizuna hor dagoela pentsatu nahi dut. Opor lasaiak igarotzeko gune aproposak bihurtu dira landetxeak; beraz, baserri-

tarrek badute non sakondu. E. Begiristain (Villabona)

■ **Etorkizuna auzolan** ikusten dut. Auzolanak eta elkarrenganako laguntzak emango digu aurrera ateratzeko ahalmena. Ez dut uste beste sekreturik dagoenik. Elkarrekin egin behar ditugu plangintzak, eta indarrak batu. A. Garate (Markina)



galdeiozu...

Txillardegia

IDAZLEA

Inperialismoa garaitzeko benetako iraultzak langileriaren eskutik etorri behar du. Nola aurreikusten duzu Euskal Herriaren askapena?


Xabi Odriozola [Tolosa]

■ **EUSKAL HERRIA** ukatzeko mementoan, Espainia osoak egiten du bat (eta gauza bera Frantziak, jakina). Herri bat herri gisa ukatua denean, herri horretako klase guztiak daude ukatuak. Mayor Orejaren, Buesaren eta Jospinen hizkerak guztiz dira berdinak. Horregatik, nazio-askapena bultzatzeko, leku guztietan, Viet-Nam eta Txina gorrietan barne, abertzale guztiek egin izan dute bat inperialismo arrotzaren kontra.

Martxoaren 2tik aurrera

Imanol Lazkano • BERTSOLARIA izango da

Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.



zuzendariari

**Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain**

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 le-
rro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta
NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburitu behar izanez gero, zuzendaritzak bere
esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

Gezurria omen

Nire azken aurreko iritzi-zutabeak sumindu egin du itxuraz EHUko Euskara Errektoreordea, aste bete beranduago egunkari honi igorritako eskutitzean ageri zaigunez, eta ez dut tamaina honetako amorraren arrazoia ulertzen.

Berak dioten bezala gezur boro-bilak badira botatakoak, ez luke larritu behar, gure kulturaren hone-lakoak berez konpontzen baitira, ez diogu eta alferrik gezurrak hanka motza duela edota «gezurra esan huen Getarian eta hi baino lehenago zen atarian». Barkatuta dago.

Gure amona zenak esaten zidan inor gezurretan zebilenean ez zela esan behar hori gezurra zenik, egia ez zela baizik, dotoreago zelako eta inor mintzen ez zelako (hizkera femeninoaren seinale segurua aski), baina gezurra beti zela gezur hala ere. Guri dagokigun auzian,

berri, ikasgaia euskaraz emateko baimenik ez izatea –eta horrela agertzen da paperetan–, ez omen da baimena ukatzea modu dotorean esanda. Bada, eskola batzuk beharko genituzke hau ulertzeko, izan ere euskaraz irakatsi ahal izateko baimenaren kontu hau delata denarik entzun dugu: trami-te hutsa dela, ezezkoa eman den kasuetan akatsa izan dela... eta berorrek esan digun bezala baimena ez emateak ez duela esan nahi baimenik ez izatea. Zaila benetan ulertzea. Are zailagoa euskararako soilik denean eta ez gaztelararako. Prozedura bakuna baldin bada, zergatik ez da gaztelaraz prozedura bera betetzen? Zergatik gai berri guztietan sistematikoki euskaraz emateko baimenik eza azaldu paperetan? Zergatik mugitu

behar du sailak bereziki euskarazko ikasgaiak direla eta? Euskarazko irakaskuntza bultzatzea ote da hau?

Azken egozpen bat aipatu nahiko nuke, leialtasunarena hain zuzen ere.

Jauna, berorrek bat nator, leialak izan behar dugu, bai ni, bai berorri eta bai guztiok, biziki balore garrantzitsua da, baina instituzioarekiko leialtasuna ez da nagusiarekiko morrontza, are gutxiago instituzio hori publikoa denean eta Euskal Herriko etorkizuneko goi-mailako prestakuntza jasoko duten gizartekideak lehengai dituenengan. Gizarteari zor diogu leialtasuna, euskal gizarteari, bere beharrak zeintzuk diren aurreikusiaz, hauek asetuko dituztenak prestatzearen erronka baitagokio

Euskal Herriko Unibertsitateari, eta honela izan dadin bidea urratzea. Ez da erantzukizun makala, baina gure ikurrean agertzen den lema dioen lez, eman ta zabal zazu. **Lore Erriondo** • DONOSTIA

Sagardotegietan bueltaka

Sagardotegietara sarri joaten naizen horietakoa naiz, edota joaten nintzenetakoa esan beharko dut. Izan ere, azken bi urteotan sagardotegietan bizi duguna izugarria da. Jende uholdea kupel bazterretan; kotxe iladak sagardotegien inguruetan; kalitate eskaseko sagardoa; prezio izugarriak, eta abar.

Sagardogileei gogoeta egin dezaten eskatu nahi diet. Uholdea lehorte bihurtu daiteke, ez badi-tuzte zaintzen *betiko* sagardozaleak. **A. Mugika** • HERNANI

• MONTXO •

